

LEZO HERRI ESKOLA
Zuzendaritza Proiektua
2026-2030

Zuzendaritza-proiektua aurkezten duena:

Agurtzane Arranbide Oronoz

AURKIBIDEA

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

- **1.1. Ikastetxearen kokapena**
- **1.2. Zuzendaritza proiektuaren lehentasunak**
- **1.3. Prozesuaren deskribapena**

2. IKASTETXEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA

- **2.1. Datu bilketa**
- **2.2. Informazioaren azterketa**
- **2.3. Erronkak lehenetsi**

3. ERRONKAK HELBURU BIHURTZEN

4. HELBURUETATIK EKINTZETARA

5. PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA

6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ERANSKINAK

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

1.1. Ikastetxearen kokapena

Zuzendaritza proiektu hau aurkeztu aurretik, beharrekotzat jotzen dugu Lezo herriaren eta Lezo Herri Eskolaren ezaugarriak eta testuingurua ezagutzea.

Lezo Gipuzkoa ipar-ekialdeko herri bat da eta Oarsoaldea bailara osatzen du Errenteria, Pasaia eta Oiartzunekin batera. Gaur egun, 6200 biztanle inguru ditu.

Hezkuntza-eskaintza zabala eta publikoa nagusitzen da herrian. Haur eskolatik hasi, HLHI Lezo Herri Eskola eta Altamira BHI-n amaituz. Herrian lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bakarra da gurea, eta bere hezkuntza-jarduna parte hartze demokratikoan, inklusioan eta ikasleen garapen integralean oinarritzen da.

Eskola komunitate osoaren parte-hartzea, elkarlana eta **konpromezua funtsezko ardatzak** dira gure eguneroko lanean. Honekin batera, ikastetxeak herrian duen garrantzia ezin dugu ahaztu, eskola baita herriaren erdigunea eta hontan Hezikuntza Guraso Elkarteak garrantzia handia du. Eskolarekin batera herrian aurrera eramaten diren ekintza kultural ugari bertatik abiatzen baitira.

Ikasleen jatorriari dagokionez, gehienak Lezokoak bertakoak dira baina, Pasai Donibanetik eta Errenteriatik ere etortzen dira gure ikastetxera. Azken urteetan, etorkinen kopuruak gora egin duela antzeman dugu, eta horrek gure ikasleria gero eta anitzagoa bihurtu du. Azken datuen arabera, gure ikaslegoaren %12a EAEtik kanpo jaiotakoa da.

Bestalde, **Lezo herria UEMAko kide** den arren, euskararen erabilera datuetan azken urteetan jaitsiera nabarmena ikusten ari da. Ezagutza oso altua izanik (%70 ingurukoa 2023ean), kale-erabilera ez da proportzio berean mantentzen. Ondorioz, gure helburu nagusietako bat euskara normalkuntzari heltzea da.

Gaur egun, 332 ikasle eta 62 irakasle eta hezitzailek osatzen dugu Lezo Herri Eskola. Azken urteetan irakasle klaustroa asko aldatu den arren berrikuntza nabarmenak eman dira ikastetxean. **Haur Hezkuntzaren** metodologia **Zirkulazio Librean** oinarritzen da eta **Lehen Hezkuntzan** berriz, **Ikasketa Kooperatiboa** eta talde lana dira gure abiapuntua eguneroko lanean.

1.2. Zuzendaritza-proiektuaren lehentasunak

Zuzendaritza Proiektu honek ikastetxearen norabide estrategikoa zehazten du, egungo testuinguru sozial, kultural eta pedagogikoari erantzunez. Dokumentu honen bidez, Lezo Herri Eskolaren hezkuntza-eredua sendotu nahi da, ikasleen ongizatea, ikaskuntza esanguratsua eta aukera-berdintasuna bermatuz.

Proiektu honek ikastetxearen **nortasuna, lehentasunak** eta **jarduera-ildo nagusiak** jasotzen ditu, Hezkuntza Komunitatearen iritzietatik abiatuta. Era berean, etengabeko hobekuntza, berrikuntza pedagogikoa eta euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko konpromezua berresten ditu.

Azken finean, Proiektu hau Lezo Herri Eskolaren etorkizunerako gida gisa ulertzen da, hezkuntza-kalitatean, elkarbizitzan eta ikasleen garapen pertsonal eta sozialean oinarritutako eskola eraikitzen jarraitzeko tresna gisa. Lezo Herri Eskolak beti izan du Zuzendaritza Talde finko eta proiektuduna, horrek egonkortasuna eta jarraipena eman diolarik ikastetxeari. Orain ere gauza bera egiteko konpromezua hartu dugu eta Zuzendaritza Proiektu honen oinarria hori da, **egonkortasuna**, **konfidantza eta parte-hartzea**. Ondorioz, **Lidergo partekatua** da gure oinarria, komunitateko kide guztiok baitugu emateko edozer. Lidergo honek sareak eraikitzen ditu eta elkarrekintza eta lankidetzan lan egitea eskatzen du.

Azkenik, esan beharra dago zuzendaritza-proiektua diseinatzeko, ikastetxearen errealitatea eta etorkizuneko erronkak aztertu direla eta Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I.Plan Estrategikoaren diseinua modu paraleloan egin dela. Horretarako, ikastetxeko komunitate osoaren ekarpenak jaso dira, eta informazio hori oinarri hartuta, hurrengo urteetarako norabide argia eta bateratua zehaztu da.

Zuzendaritza taldeko kideak:

Aurkezten garen hirukoak eskolako esparru ezberdinetan eta ardura ezberdinekin lan egin dugu azken urte hauetan.

Idazkaria: IÑAKI HERNANDEZ GARCIA.

Gorputz hezkuntzako irakaslea eta duela 6 ikasturte zuzendaritza batzordeko idazkaria. Urte betez gurekin lanean arituko da talde berriari lagunduz eta jarraipena emanez.

Ondoren, 2027-28 ikasturtean, irakasle berria sartuko da lanpostu honetan. AINARA BLAZQUEZ MARTIN, momentuan 3.zikloko tutorea eta zikloko kordinatzaile lanetan dabilena.

Ikasketaburua: JAIONE MENDIA GARMENDIA

Lehen hezkuntzako tutore, azken bi ikasturteetan Bizikidetza batzordeko eta BAT taldeko burua izanik, ikasturte batzuk eman ditu gure ikastetxean. Horrek, eskolaren inguruko ezagutza zuzena ematen dio.

Zuzendaria: AGURTZANE ARRANBIDE ORONOZ

Lehen hezkuntzako irakaslea, ikasturte honetan BEAtar lanetan eta Euskara Normalkuntzako arduradun bezala. Azken urteetan 3.zikloko koordinatzaile lanetan ere aritu dena.

Taldea osatzea ez da erabaki erraza izan baino, bai sendoa eta arduratsua. Eskolarekiko dugun konpromezuak eragin zuzena izango baitu gure lan eta erabakietan. Horrela, gogotsu eta arduraz helduko diogu proiektu berri honi.

Modu sintetiko batean, hauek dira zuzendaritza talde honek ezartzen dituen lehentasun orokorrak, aurrerago zehatzago definituko ditugunak gure helburuak azaltzerakoan.

1.- Irakurketaren lanketa sistematizatzea eta Irakurketa plana sortzea.
2.- Ikastetxeko antolakuntza doitzea eta ordutegi berriarekin plangintza berriak txertatzea.
3.- Gure hezkuntza komunitatearen pertenentzia sentimendua, parte hartzea eta kohesioa indartzea.
4.- Hezkuntza Komunitatean Euskararen erabilera sustatzea, hobetzea eta indartzea.

Lehetasun hauetaz aparte, zuzendaritza funtzioaren marko-konpetentziala ere kontuan hartuko dugu eta helburuen zehaztapenean guztiak jasota daudela bermatu dugu. Proiektu honen hurrengo puntuetan gure helburu eta ekintzak konpetentzia hauekin lotu dira.

● **K1-Plangintza estrategikoa**: Hezkuntza komunitatearen eta bestelako eragileen beharrak eta irirtziak jaso, analizatu eta helburuak adostu eta zehaztu.

- **K2-Eraldaketarako antolaketa:** ikaslea erdigunean izango duen antolaketa-eredu inklusiboa definitu.
- **K3-Lidergo pedagogikoa:** zehaztutako helburuak kontutan hartuz ikasirakaskuntza prozesuen kalitatea eta ebaluazioa bideratu.
- **K4-Lidergo partekatua**: ikastetxeko pertsonen inplikazioa eta pertenentzia sentimendua sustatu.
- **K5-Ikasle guztien arrakasta:** inklusioa, ekitatea eta justizia-sozialerako hezkuntza lidergoa garatu, ikasle guztien arrakasta bermatuko duten baldintzak bultzatuz.
- **K6-Printzipio etikoak:** Hezkuntza-komunitatearen ongizatea bilatuz, harremanetan bide berriak bilatu, pentsamendu kritikoz jokatu eta gogoeta egin.
- **K7-Elkarbizitza positiboa:** Gatazkei ikuspegi eraikitzailetik erantzun eta prebentzioari lehentasuna ematen zaiola zihurtatu.
- **K8-Elkarrekin ikasten duen komunitatea:** berrikuntzak bultzatuz, elkarrekin ikasten duen komunitateko kideen garapen pertsonala, soziala eta profesionalaren kultura sustatu.
- **K9-Parte-hartze demokratikoa:** parte-hartze demokratikoa bultzatu eta inplementatu.
- **K10-Kanpo harremanak:** beste ikastetxeekin, gizarte-inguruneko eragile eta elkarteekin ezagutza partekatu eta kolaboratu.

1.2. Prozesuaren deskribapena

Zuzendaritza proiektu honek bi ezaugarri izan ditu: Parte hartzea eta gardentasuna. Horrela, komunitatearen iritziak jaso eta kontutan hartu dira guztiei pauso ezberdinen berri emanez.

1.fasea: 2024-25 ikasturtean momentuko zuzendaritza taldeak irakaslego finkoa bildu zuen ez-ohiko bilera batean. Bertan,
agintaldiaren amaieraren berri eman zuen.

2.fasea: Ikastetxean betidanik bermatu den zuzendaritza egonkorraren ereduari heltzea erabaki genuen ikasketa burua izango denak eta biok, hasieran gu izango baikara zuzendaritza taldeko partaide berriak.

3.fasea: behin erabakia hartuta 2024-25 ikasturtearen amaieran, zuzendaritza talde berria egongo zela jakinarazi genion irakasle klaustroari.

4.fasea: 2025-26 ikasturteko lehen hiruhilekoan, diagnosi faseari hasiera emateko momentuko zuzendaritzarekin adostu zen familia, irakasle eta ikasleei galdetegiak bidaltzeko momenturik egokiena.

5.fasea: zuzendaritza-proiektuko diagnostiko-faseak baliagarriak izan dira besteak beste, hezkuntza-eragile guztiak ondo identifikatzeko eta gure lehentasunak finkatze aldera.

6. fasea: egindako diagnosiaren emaitzak aintzat hartuta, erronkak identifikatu ditugu eta ezarritako ildo estrategikoen arabera, helburuak zehaztu eta lehenetsi ditugu. Horretarako, klaustrokideak lan-bilera batera deituak izan dira ekintzak proposatu eta adosteko.

7. fasea: behin helburu eta ekintzak zehaztuta, proiektuari forma eman diogu. Forma emateko fase horretan, zuzendaritza funtzioen marko-konpetentzialarekin lotura bermatuta dagoela baieztatu dugu eta prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa eraginkortasunez egin ahal izateko hainbat adierazle definitu dira eta denboralizazioari ekin zaio.

2. IKASTETXEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA

2.1. Datu bilketa

Datu bilketa egiteko hiru esparrutan oinarritu gara: irakasle-klaustroa, familiak eta 6.mailako ikaslegoa. Galdetegien formatua Google forms galdetegiak izan dira eta Inika aplikazioaren bidez eta posta elektronikoz partekatu dira.

2.2. Informazioaren azterketa

BARNE - ANALISIRAKO TAULA			
EREMUA	**ALDAGAIA**	**INDARGUNEAK**	**AHULEZIAK**
Ikasle guztien arrakasta	Curriculumaren garapena, Emaitza akademikoak eta Aniztasunari	-Mailako tutoretza plana. -LH etapako tutoretza saioen lanketa planifikatua. -LH2 mailako ikasleei ITT frogak pasatzea eta hobekuntza plana.	-Banakako tutoretzen plangintzaren beharra. -Irakurketa-praktikaren sistematizaio falta. -Egungo eskola-ordutegi eta

	erantzuna.	-HH eta LHko 1.zikloaren arteko zubi-lanak. -HHen Ahozkotasunaren lanketa sistematikoa. -HHen irakurtzeko eta idazteko zailtasunak aurreikusteko frogak. -LH6.mailako ikaslegoaren %80ak 4 edo 5 punturekin baloratu du ikastetxean guztiek aukera berdinak izatea. -HPBa duten ikaslegoarekin (ikaslegoaren %15a) lan egiteko Laguntza talde finkoa. -Ikasle etorkin kopuru bajua (%10a). -Ikasle bekadun kopurua (%40a). -Aholkulari osoa eta erdia izatea.	plangintzaren egokitzapen falta irakurketa praktika bermatzeko. -HH eta LH etapen arteko trantsiorako zehaztapen falta. -Eskolako barne-emaitzetan Hizkuntza-komunikazioa euskaraz konpetentziaren hasierako mailan dagoen ehuneko kopuru (%27a) nabarmena. -HH etapako matematikaren lanketa ez sistematizatua. -Azken ikasturtetan 2 arlo gainditu gabe promozionatzen duten ikasleen kopuruaren handipena. 2023:%2 2024:%9 -Aniztasunaren trataerarako plan eza. -HPB dituzten ikasle kopuruaren handitzea (%15a).
Bizikidetza + eta Ongizate emozionala	Gatazken kudeaketa	-Ikasleek gatazken kudeaketarako ADOSTOKIA herramientaren ezagutza. -Ikasleen arteko harremanak hobetzeko Elkarbizitza behatoki txikia eta proposatzen diren hobekuntza jarduerak. -Ikastetxe mailan, ikasleen arteko elkarbizitza hobetzeko jarduera bateratuak egiten dira (azaroak 25, martxoak 8…)	-ADOSTOKIA herramientaren erabilera txikia. -BAT taldearen ezagutza bajua familia eta ikasleen artean. -Irakasleen arteko irizpide bateratu falta gatazken kudeaketarren esku-hartzerako. -Jangela garaian arazoak eta begiraleekin ematen diren errespetu faltak. -Ikasleen segurtasun falta

		-BAT taldea osatuta dago eta funtzioak argi daude. -Jangela garaian 3.zikloko ikasleekin barne-araudia martxan jarri da.	sentimendua jolas edo jangela garaian.
Hezkuntza berrikuntza estrategia eta antolaketa eraginkorra	Berrikuntzarako gaitasuna	-Irakasle klaustroak prestakuntza eta proiektu berritzaileetan parte hartzeko jarrera positiboa erakusten du. -Etapa bileretan gai ezberdinak jorratzeko eta hobekuntza estrategiak proposatzeko aukera dago. -Irakaslegoaren %83ak 4 edo 5 punturekin baloratu du ikastetxeko lan-giroa.	-Prestakuntzetan landutakoa egunerokotasunean isladatzeko beharra. -Irakaslegoaren beharrei egokitutako formakuntzaren beharra. -Irakasleen lana sistematikoki ebaluatzeko herraminta falta. -Matematika konpetentziaren metodologiaren inguruko hausnarketaren beharra.
Ikastetxearen estrategia eta antolaketa eraginkorra	Testuinguruaren azterketa orokorra	-ZP egitean hezkuntza komunitatearen iritzi eta proposameank jaso dira. -Ikastetxean ordutegia aldatzeko prozesua gauzatu da eta ordutegi aldaketa lortu da.	-Familia askoren ikastetxeak proposatutako ekintzetan parte hartze bajua. -Irakaslegoaren %46ak 3 puntu edo gutxiagorekin baloratu izana guztion artean helburuak erabakitzeko gaitasuna.

KANPO - ANALISIRAKO TAULA			
EREMUA	**ALDAGAIA**	**AUKERAK**	**MEHATXUAK**
Ikasle guztien arrakasta	Emaitza akademikoak	-ED emaitzek aukera ematen diote irakaslegoari programazioetan hausnarketa egiteko eta behar izanez gero hobekuntzak ezartzeko.	- ED (Ebaluazio diagnostikoa) eta EBE (eskola barruko emaitzak) datuen arteko desoreka.
Bizikidetza eta ongizatea	Gatazken kudeaketa	-Ordutegi aldaketa eta jangela garaiko gatazken kudeaketa hobea. -Kanpo eragileekiko harreman positiboa (Adingabekoen Harrera Etxea, Anbulategia, Udaleko Gizarte Langilegoa, Kale Hezitzaileak, Euskara teknikaria…)	-Jangelako begiraleekiko harremanak eta konfidantza bajua. -Herrian dagoen itunpeko ikastetxearekin harreman eskasa.
Berrikuntza	Euskara normalkuntza	-Ikastetxeko Guraso Elkarteko *Talaia Euskara* Batzordearekin harremana estua eta ikasturteko ekintzen antolaketa, lanketa eta balorazioak.	-Zenbait familien euskararekiko duten desadostasun eta sentsibilizazio faltak.
Estrategia eta antolaketa eraginkorra	Maila soziekonomikoa	-Egoera zaugarrian dauden gure komunitate kideei laguntzeko bideak.	-Egoera zaugarrian dauden ikasle kopurua eta egoera honen eragina bere garapen kognitibo, soziologiko, fisiko eta emozionalean.

2.3. Erronkak identifikatu eta lehenetsi

Barne eta kanpo analisia egin ondoren, bertan lortutako informazioa zuzendaritza proiektuko bidea egingo duten erronkak identifikatu ditugu. Honela, ahuleziak zuzendu, indarguneak mantendu, mehatxuei aurre egin eta aukerak aprobetxatuko ditugu.

EREMUA	ERRONKAK
Ikasle guztien arrakasta	-Irakurketa plana definitu eta sortzea. -Irakurketa praktika sistematizatu eta antolaketa eraginkorra gauzatzea. -Eskolako barne emaitzen analisia ikasleen arrakastan eragingo duen antolaketa planifikatzeko erabiltzea.
Bizikidetza eta ongizatea	-Gatazken kudeaketa hobetzeko beharrezko formakuntza jasotzea eta irakasleen artean esku-hartze irizpide bateratuak ezartzea. -BAT taldearen lidergoa finkatzea. Ikasle eta familiei informazioa luzatzea.
Berrikuntza	-Ebaluazioa sistematizatzea, errubrikak sortuz eta metodologia berriak modu koordinatuan aplikatuz. -Irakurketa konpetentzia lantzeko formakuntza zehatza jasotzea. -Matematikaren konpetentzia lantzeko formakuntza jasotzea eta beharrezko ausnarketa egitea.
Estrategia eta antolaketa eraginkorra	-Euskararen erabilera hobetzeko neurri bateratuak hartzea eta hezkuntza komunitatearekin partekatzea. -Eskolako Barne Emaitzen arabera Euskara arloa gainditzen duten bataz bestekoa hobetzea**.**

3. ERRONKAK HELBURU BIHURTZEN

Ondorengo helburuak definitzeko, AMIA tresna erabili dugu eta lehenetsitako erronkak helburu bihurtu ditugu.

Helburu hauek argiak izan behar dira eta erabakitako ekintzak bideratzen laguntzen dute. Honekin, SMART ezaugarriak kontutan hartu dira.

ERRONKETATIK HELBURUETARA	
ANALISIAREN ONDORIOAK	**HELBURUA ZEHAZTU**
Hobetzeko eremua 1: Ikasle guztien arrakasta	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragitea, ikasleen emaitzak aztertzeari esker identifikatutako hutsuneak kontutan hartuz, metodologiari dagozkion prozedurak sistematizatzeko eta ikasleen arrakasta lortzeko irakurketa eta matematika konpetentziak landu.
Hobetzeko eremua 2: Bizikidetza eta Ongizatea	Eskolako bizikidetzan eragitea, protokoloak osatzen jarraituz, beharrezko formakuntza jasoz, eskola-komunitatean elkarbizitza osasuntsua sustatuz gure hezkuntza komunitatearen pertenentzia sentimendua, parte hartzea eta kohesioa indartzeko.
Hobetzeko eremua 3: Hezkuntza berrikuntza eta garapen profesionala	Euskararen erabilera handitzea , Eskola-komunitateko kideen eta herriko eragileen arteko lankidetzan, ikasleen euskara maila, euskara arloko emaitzak eta erabilera hobetzeko.
Hobetzeko eremua 4: Ikastetxearen estrategia eta antolaketa eraginkorra	Eskolako antolaketa doitzea, inplementatutako koordinazio momentuak bermatuz eta formakuntza saioetan landutakoa zabalduz irakaslegoaren lana erabilgarri bihurtzeko.
ZER? **NOLA?** **ZERTARAKO?**	

4. HELBURUETATIK EKINTZETARA

HELBURUETATIK EKINTZETARA						
HELBURUA	EKINTZA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
			26-27	27-28	28-29	29-30
H.1	**EK1.1-Matematika batzordea sortzea** HH eta LHko ordezkariak izendatuz, erabakiak bertikalki hartzeko.	HH eta LHko zikloetako ordezkariekin matematika batzordea sortu da eta martxan jarri da, hiruhileko bakoitzean gutxienez bilera bat eginez.	x			
	EK1.2-Irakurketa Plan Orokorra diseinatzea eta ezartzea, ziklo guztietan estrategiak eta helburuak bateratu eta definituz.	Irakurketa Plan Orokorra aurkeztu eta argitaratzea.		x		
	EK1.3-Irakurketaren lanketa mailaka sistematizatzea.	Irakurketa eta ulermena lantzeko saio bat erabili da astero maila guztietan.	x	x	x	x
	EK1.4- Materialak ikaslearen hizkuntza-mailaren arabera antolatzea irakurketa maila hobetzeko.	Ziklo bakoitzak irakurmen mailaren araberako materialak sortu eta egokitu ditu.	x	x	x	x
	EK1.5- Matematika konpentziari ikuspegi motibatzailea emateko **saio bereziak diseinatu eta antolatzea.**	Erronka matematikoak antolatu dira LH etapako 2. eta 3.zikloan.	x	x	x	x
	EK1.6- LH etapan, HHen bezala, ahozkotasunaren lanketa sistematikoa antolatzea, ekintzak, jarduerak eta maila bakoitzeko minimoak finkatuz.	LH etapako ziklo guztietan ahozkotasunaren lanketa ordutegian finkatu da.	x			
	EK2.1- Ikastetxeko Elkarbizitza eta ongizatea bermatzeko **Bizikidetza Batzordea indartzea eta behatoki**	Hiruhilean behin Behatoki txikiak proposatutako ekintza bat gauzatu da.	x	x	x	x

	txikia mantentzea.					
2.H	**EK2.2- Ikastetxean aniztasunaren kontzientzia sustatzea,** kulturartekotasuna erdigunean izanda, ikasle eta familiekin ekintza ezberdinak burutuz.	Gutxienez ikasturtean behin kulturartekotasunaren inguruko ekintzak antolatu dira.	x	x	x	x
	EK2.3- BAT taldearen aurkezpena hezkuntza komunitatean.	Mailako gela bileretan BAT taldearen funtzionamendua azaldu da.	x		x	
	EK2.4- Hezkuntza komunitateko beste langileak ezagutzera ematea, komunitateko sentipena hobetzeko.	Eskolako ikasturte hasierako gidan ikastetxeko langile guztiak azaldu dira.	x	x	x	x
	EK2.5- Familiak inplikatzea, gatazken prebentzio eta kudeaketaren inguruko tailerren bidez.	Ikasturtean behin gutxienez familiei bideratutako formakuntza saio bat antolatu da.	x			x
	EK2.6- Ikasle ordezkarien papera indartzen jarraitzea.	Ikasturte hasieran LH4tik 6ko gela bakoitzak 3 batzorde nagusietako (50/50, Euskara.B eta Behatoki txikia) ordezkariak aukeratu ditu.	x	x	x	x
	EK2.7-Ikasleen harremanak kudeatzeko **soziogramen erabilera bermatzea.**	Ikasturte hasieran eta amaieran LHko maila eta gela guztietan soziogramak egin dira.	x	x	x	x
	EK2.8-Tutoretza plana errebisatzea eta plangintza antolatzea.	1.hiruhilean maila bakoitzak tutoretza lantzeko plangintza gauzatuko du.	x			x
3.H	**EK3.1-** Euskara erabilera eta ahalmena hobetzeko, **hizkuntza-mailaren araberako taldekatze homogeneoak inplementatzea** maila guztietan gaitasunaren araberako aurrerapena bermatuz.	LH etapako maila guztietan hizkuntza-mailaren araberako taldekatzeak egin dira.	x	x	x	x

	EK3.2- Euskararekiko atxikimendua lortzeko **ekintza berezietan parte-hartzea.**	Ziklo guztietan lehiaketa literioren batean parte hartu da.	x	x	x	x
	EK3.3- Ikastetxeko eta herri mailako euskara bultzatzeko eragileekin **koordinazio bileren egutegia ikasturte hasieratik adostea.**	Euskara Talaia, AEK eta bestelako eragileekin koordinazio bileren egutegia ikasturte hasieran antolatu da.	x	x	x	x
	EK3.4- Herriko hezkuntza publikoko ikastetxeekin (Haurreskola eta DBH institutua) **euskararen inguruko koordinazio-mahaia sortzea.**	Ikasturte hasiera eta amaieran gutxienez, euskara mahaia bildu da.	x	x	x	x
	EK3.5- Euskal Kultura sustatzeko Ikasleen **Euskara Batzordearekin ekintzak planifikatzen jarraitzea.**	Hiruhilean behin ikasleen euskara batzordeak euskara bultzatzeko kanpaina bat proposatu eta egin du.	x	x	x	x
4.H	**EK4.1-** Ahozkotasuna, matematika eta irakurketa konpetentzien lanketa hobetzeko eta finkatzeko, **HH eta LH etapen arteko koordinazio bilerak antolatzea.**	HH eta LHko etapak hiruhilean behin elkartu dira gai ezberdinak jorratzeko.	x	x	x	x
	EK4.2- Irakasle taldearen lana sistematizatzeko eta lanketa eraginkorra sustatzeko, **zikloka, irakaslearen zereginak zerrendatzea eta errubrikak sortzea, norberak egin beharrekoa txekeatzeko.**	Irakasleen zereginak zerrendatu dira eta errubrika txantiloia sortu da.	x			
	EK4.3- Mailaka, ikasturteko **arloko programazioen plangintza adostu** eta antolaketa erabilgarria bermatzea.	Mailaka adostutako programazioaren plangintza aurrera eraman da.	x	x	x	x

5. PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
12tik 23ra: ZP entrega Hezigunetik Eskerrak eman prozesuan parte-hartu dutenei INIKA bidez	**Otsailak 13:** Hezkuntza komunitateari ZP aurkeztu. **Otsailaen 23tik martxoaren 6ra:** Klaustroaren eta Eskola kontseiluaren ezohiko bilkurak. Ikastetxean	**Martxoaren 6a baino lehen:** Hautaketa batzordeko kideen datuak jakinarazi. Hezigunetik **Martxoaren 16tik 27ra:** ZParen defentsa eta balorazioa. Ikastetxean	
MAIATZA	**EKAINA**	**UZTAILA**	**ABUZTUA**
	ZParen infografia familiei helarazi INIKA bidez		
IRAILA	**URRIA**		
ZPa publiko egin Web orrian	Ikasturteko helburuak jakinarazi Eskola Kontseilu, eta Klaustroari. INIKA bidez		

6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA

2026-2030 AGINTE KOADROA						
KONPETENTZIAK	**HELBURUAK**	**LORPEN ADIERAZLEAK**	**DENBORALIZAZIOA**			
			26-27	**27-28**	**28-29**	**29-30**
K1 K2 K3 K5 K8	**1.H:** Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragitea, ikasleen emaitzak aztertzeari esker identifikatutako hutsuneak kontutan hartuz, metodologiari dagozkion prozedurak sistematizatzeko eta ikasleen arrakasta lortzeko irakurketa eta matematika konpetentziak landuz**.**	1.1- Irakurketa Plan Orokorra definitu eta osatu ondoren, ITT frogen emaitzetan zailtasunak dituzten ikasleen kopurua gutxitu da.				x
		1.2- Irakurketaren lanketa LH etapa osoan sistematizatu da eta beste arloetako emaitzetan trasferentzia positiboa erakusten du.				x
		1.3- Matematika metodologiaren hausnarketa egin da eta hutsune nagusiak identifikatu dira.	x			x
		1.4- Eskola-emaitzen azterketa sistematikoa gauzatu da, klaustroarekin partekatu da eta hobekuntza proposamenak IUPean jaso dira.	x	x	x	x
K3 K4 K5 K6 K7 K8 K9	**2.H:** Eskolako bizikidetzan eragitea, protokoloak osatzen jarraituz, beharrezko formakuntza jasoz, eskola-komunitatean elkarbizitza osasuntsua sustatuz gure hezkuntza komunitatearen pertenentzia sentimendua, parte hartzea eta kohesioa indartzeko.	2.1- Bizikidetza giroan hobekuntza hauteman da ikasle eta irakasleen barne-galdetegietan (%10eko igoera eman da)		x		x
		2.2- Tutoretza plana gauzatu da. Hezkidetza eta Bizikidetza positiboa lantzeko dinamikak txertatu dira.	x	x	x	x
		2.3- Irakasle eta ikasleen artean gatazken kudeaketarako Adostokiaren erabilera areagotu da.	x			x
		2.4- Hezkuntza komunitateko kideen pertenentzia sentimendua eta ikastetxeko ekintzetan eman den parte-hartzea handitu da.		x		x

K1 **K5** **K9** **K10**	**3.H:** Euskararen erabilera handitzea, Eskola-komunitateko kideen eta herriko eragileen arteko lankidetzan, ikasleen euskara maila, euskara arloko emaitzak eta erabilera hobetzeko.	3.1- Barne emaitzetan euskara eta hizkuntza arloan %10eko hobekuntza eman da.	x			x
		3.2- Euskararen erabilera eta euskal kultura indartzeko ekintzak burutu dira eta ikasleen asebetetze maila ona izan da.	x	x	x	x
		3.3- Euskara mailaren araberako taldekatzeak egin dira eta lanketa programazioetan txertatu da.	x	x		
		3.4- Ikasleen ibilbideko ikastetxeekin koordinazio bermatu da harremanak sendotuz euskara normalkuntzarekin zerikusia duten erabaki bateratuak hartu dira.		x		x
K1 **K2** **K3** **K8**	4.H: Eskolako antolaketa doitzea, inplementatutako koordinazio momentuak bermatuz eta formakuntza saioetan landutakoa zabalduz irakaslegoaren lana erabilgarri bihurtzeko.	4.1- Ordutegi berrian lan talde finkoen koordinazioa bermatu da.	x			
		4.2- Ikasturtean zehar prestakuntza-saioetan egindako lanketatik adostutako hiru estrategia ikasgeletan inplementatu dira.	x	x	x	x
		4.3- Irakasle klaustroaren iritzi eta beharrak jaso eta analizatu dira eta urteko memorian isladatu dira.	x	x	x	x
		4.4- Irakasleek beraien betebehar eta zereginak jasotzen dituen kontrol-zerrenda sortuko da eguneroko lana eraginkorragoa izan dadin.	x			

Zuzendaritza proiektuaren ebaluazioa	
Zertarako?	-Proposatutako helburuen betetze-maila neurtzeko. -Hartutako neurri eta jardueren eraginkortasuna baloratzeko. -Ikastetxeko funtzionamenduan hobekuntza-arloak identifikatzeko. -Zuzendaritza proiektuaren etengabeko hobekuntza eta egokitzapena bermatzeko. -Hezkuntza-komunitateari gardentasuna eta informazioa eskaintzeko.
Noiz?	1/Agintaldiaren hasieran: ikastetxearen abiapuntuko egoera aztertzeko. 2/Agintaldian zehar: proiektuaren garapena eta neurriak aztertzeko. 3/Agintaldiaren azken ikasturtean : lortutako emaitzen balorazio orokorra egiteko.
Nola?	-Ikastetxeko barne emaitzak, Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak eta konpetentzien bilakaera kontutan hartuta. -Bizikidetza-giroaren hobekuntza eta gatazken kudeaketan indarra jarriz. -Familien eta irakasleen parte-hartzea sustatuz. -Ikastetxeko Urteko Planean jasotako ekintzen balorazioa eginez. -Ikastetxearen antolaketa eta kudeaketaren eraginkortasuna neurtuz. -Formakuntza eta berrikuntza jardueren eragina kontutan hartuz.
Tresnak eta baliabideak	-Klaustro, Eskola Kontseilu, pedagogika, ziklo eta batzordeetako bileren aktak. -Asebetetze galdetegiak (irakasleei, familiei eta ikasleei). -IUP Ikastetxeko urteko plana **-**Ikastetxeko Urteko Memoria.
Jarraipen egitura	-Zuzendaritza-taldearen bileren bidez. -Klaustroarekin eta Batzorde Pedagogikoarekin egindako jarraipen-saioen bidez.

	-Eskola Kontseiluari aldizkako informazioa emanez. -Urteko Memorian lortutako emaitzak eta hobekuntza-proposamenak jasoz.
Ondorioak zertarako erabili?	-Hurrengo ikasturteko IUP eta Hobekuntza Plana egokitzeko. -Ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendua hobetzeko. -Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko. -Zuzendaritza proiektuaren etengabeko eguneraketa eta egokitzapena egiteko.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

AGINDUA, 2025eko azaroaren 25ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa, 2026ko ekainaren 30ean kargua hutsik geratuko den ikastetxeetan.

17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarenak (41. artikulua), eta, batez ere, otsailaren 28ko 29/2023ko Dekretuak, Hezkuntzaren arloan eskumena duen titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendaritza-eginkizunean sartzeari, prestakuntza jasotzeari, hura ebaluatzeari eta aintzatespenari, eta hura osatzen duten karguak uzteari buruzkoak, arautzen ditu zuzendaria hautatzeko prozedura eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako pertsona bakarreko beste gobernu-organoen izendapena eta kargu-uztea.

Hezkuntza Saila. (2025). Zuzendaritza proiektua egiteko laguntza-gida.

ERANSKINAK

-Erabilitako galdetegiak:

-Familien iritziak jasotzeko galdetegia.

-LH6.mailako ikasleen iritziak jasotzeko galdetegia.

-Irakasleen iritziak jasotzeko galdetegia.

-Galdetegien emaitzak:

-Familien iritziak.

-Irakasleen iritziak.

-LH6.mailako ikasleen iritziak.

-Ikastetxeko I.Plan Estrategikoaren Hobekuntza Plana.